

PERU MATRAKA TA PEDR'ANTON

I

ERREKARTEKO PERUCHO-N IAIOTZA



BIZKAI, Gipuz ta Arabako mendien ustaitzat, iru aizta máiteen ondasunak pilotuten legez' Aramaio izentzat daukan ibar bat dago Euskal-errian.

Bere inguruetan batzartuten daiz noizik noizera' ichasotik mendi-muruetara arrainak bialdu daroen krezalezk ar-nasa gozoa, Bakioko chakolinari daron usain ezin obea, Ernaniko sagardoen lurrun eztitsua, ta Ziraurkingo arda mamaintsuen likurta: arranoen garraizi bildurkorra kaz chorri barritsuen chioak eta bildots negartien alaraauak lagun egiten dautse artzain chiztulariari. Bere muruetatik Ambotoko dama ezilkorren baztar ta soloak ikusten daiz eguraldi onean, eta Arabako lur gorrizkak, eta Durango-aldean unean unean achurlariak ereinta daukezan eche-pilochoak, eta Mailabiko berezi orritsuen inguruan ichasoa gurasotzat ezaututera doa-

OARKERAK, NOTAS.—Ustai, aro. Pilotu, amontonar. Ibar, valle. Inguru, derredor. Batzartu, juntarse. Noizik noizera, de vez en cuando. Muri, colina. Kresal, agua salada. Lurrun, vapor. Likurt, aroma. Arrano, buitre. Garraizi bildurkorra, (el) grito que infunde miedo. Daiz, dira, son. Gorrizka, rojizo. Unean unean, de trecho en trecho. Berezi, jaro.

zan ibaichoak, eta Elgetako mendi konkordunak eta euren azpian Bergarako zelai ederra, euren aurrean Done Antonek euskaldunen erreguak enzuteco Urkiolan eregita daukan Eliza polita, ta atzean' Aranzazuko mendietan ama Mariak daukan gela miraritsu a.

Gizonari bere amaia oroituteko ezin leike toki egokia-gorik opa. Eguzkien bornuan dabilzan izarrak legez, ichaso zabalen erdian dagon ugarte baten anzera' dagoz or da emem zabalduta Aramaiko echeak eta erri oskölchoak' Eliza polit bat ertegitzat daukela. Ez euen gure asaba maitegarriak Eliza uts ta ots bat eregiteko euren sinizte bizi ta sendoa zimendu ta sustraitzat ipini, ez euan legez Iaunak izarren ganean egin zerua' bera bakarrik bizi izan dein. Lurretik zerura' Iaunak noiz deituko' begira dagozan biotz oneko gizonen gisan' dago Egilea zerutik Aramaiko Elizachora begira, eta Aramaiotarrak Eliz onetanche daukez ezarrita begiak eta biotzak goizean egu zkiak laztan gozo bat emoten dautsenetik iluntsean lo-usaineko agurra egiten dautsen arte.

Eliz'onen aurrean *chirikilan* ebilzan mutilcho batzuk negu arrasalde batean. Atan egozan artean eta eurak konturatuteko azti bage' sein eder bat bataiatu euen Eliz-atean; ez itzan legez sein-au Ola-Iaunen semea' ez euen *bolorik* euki eta. *bolo* bageko bataiatuteak baino esku arteko makilachoak ardura geiago emoten eutsen' beti zorionagaz ames egiten euen umeari.

Ibaicho, riachuelo. Gela, aposento. Amaia, fin. Oroitu, recordar. Egoki, á propósito. Opa, desear. Bornu, derredor. Ugarte, isla. Oskol, menudo. Ertbegui, centro, Eregui, construir. Noiz deituko' begira, esperando á que llame. Gisan, á manera. Ezarrita, hijos. Laztan, abrazo. o-usaineko agurrá, saludo (despedida) de *olor* de sueño. Chirikila, juego de *caldcrón*. Aztí, tiempo para hacer algo. Sein, aur, niño. Bataiatu, bautizar. Euen, habian. Itzan, era ó se había. Bolo, reparticion de dinero en el Bautismo (viene de la palabra latina *volo*, quiero, que dice el padrino). Ardura, cuidado. Ames, sueño.

Iakin euen' ume iokolariak ez arren' goruetan egozan atso chimurrik' sein-oni Pedro Antonio de Errekarte ipini eutsela erderaz izena, eta Mari Manu Muitizkon semea itzala.

Iatorrizko detua dai atsoetan egoi edo erriko aizeak igittuten dauzan orbelen moduan esan-gutarragaz batera ta beztera ibiltea, nai guzurrak asinaten nai egi biloizak arkola ta eztalduten, orniduagaz beti zerbait ausoan enzun daroezan albizta ta barriak.

Gorudun atso barritsuak-bere-asabakgandik mailarik mai-la ta belaunik belaun iatziriko ekandu au aztuteari charto erichita' ibar-inguru guztietan zabaldu euen Errekarteko Peruchon iaiotza.

Urrengo goizean' sartain-durundira batutene daizan érleak bezin arin' batzartu itzazan Mari Manun echean belaun-burueta indar zarra euken ingurueta atso guztiak.

Batzar arretan Jaungoikoen legea zatika ikasita bezte bage' urietako lege-maisuak esku artean darabilzen ausiak erabagiteko lain epai ta erichi argitaratu itzazan.

Batak inoan: «Demporaz zer mutil ederra.»

Bezteak: «Baba-lorea dirudi.»

Urrengoak: «Ire itza atzeratuta' aitaaitan anza artuten dautsat.»

Aranzagokoak: «Ama berbera dai.»

Iarraituke dau
EZTI-ABAUAK.

Goruetan, en rueca ó *arruecando* hilo. Atso chimurra, vieja fruncida. Itzala, que era. Iatorri, origen. Detu, pasión ó inclinacion. Igitu, mover. Biloiz, desnudo. Gutar, ansia. Arkola, adornar. Orni, cuota. Albizta, noticia. Asabak, antepasados. Maila, casilla de red, peldaño de escalera, grado. Ekandu, costumbre. Iaiotza, nacimiento. Sartain, sarten. Durundi, eco. Bezin arin, tan pronto como. Itzazan, eran ó se habian. Zatika, á pedazos. Ausi, litigio. Erabagiteko lain, tanto como para resolver. Epai, sentencia. Erichi, opinión. Inoan, decía. Anza, semejanza. Itz, berba, palabra. Berbera, mismísima.